



Fernando Diez, Agurtzane Larrañaga eta Aiora Enparantza, jai batzordeko kideak.

Ibaetako jaiak, belaunaldien arteko topaleku

Hilabeteak lanean eman ondoren, jai batzordeko kideek prest dute otsailaren 28tik martxoaren 4ra bitarteko egitaraua. Jaiak baino gehiago, auzoaren nortasunaren erakusle dira egun horiek, eta adin tarte askotariko bizilagunak elkartzen dituzte, horien arteko harremanak sendotuz.

T&A_Olatz Balda Sagarzazu

Txupinaren faltan, txorizo usaina dute jaien aurrekari Ibaetan. «Auzo honetan arazo bat daukagu gai horrekin», dio barre artean Aiora Enparantza Ibaetako Jai Batzordeko kideak. Festetako hamaiketako, oturun-tza eta azkenburuko dira lukainkak, horien ibilbidea dezente luzatzen den arren. «Beti berdín gabiltza. Beti dira gehiegi».

Txorizo dastaketa amaiezinaz harago, Ibaetako Jai Batzordea gustu eta adin tarte guztientzako jarduerak antolatzen ibili da azarotik. Bide horretan, gainera,

auzoko hainbat eragile izan ditu bidelagun, urteroko moduan, eskaintza oparogoa izan dadin. Hori horrela, auzoko batzordearen ekitaldiez gain, garagardo festa, herri afariak, sardina jana, musika emanaldiak eta jarduera bereziak ez dira faltatuko. Jai batzordea bezala, auzoko komertzio eta taberna askoren ekarpenak funtsezkoak direla jakin badakite: «Eskertzekoa da auzoarentzat egiten duten lana».

Txorizoak adina jarduera

Kaldereroek inauteriak iragartzen di-

tuzten moduan, iragartzen ditu San Sebastian egunak auzoko festak Ibaetan, eta orduan hasten da engranaje guztia mugitzen. Martxoaren hasieran lehortzen da festa, eta hilaren lehena dute egun handia, Aingeru Zaindariaren erromeriarekin.

Egun horretan, ohiturak bultzatuta, ermitarako bidea egiten dute auzotarrak. Gutxi batzuk oinez igo ohi dira. Edonola ere, taxien eta autoen erromesaldia da nagusi; adina aitzakitzat jarrita, batzuek; nagikeria onartuta, gehienek. Hala, sermoia entzun, salda beroa

edan eta festetako lehen txorizoak das-tatu ondoren, horien digestioa malkar-tzeko dantzan aritzen dira, Estanga aita-alaben eskusoinuaren konpainian. «Ohiko moduan ibiliko gara aurten ere», azaldu du Agurtzane Larrañagak, jai ba-tzordeko kideak.

Festa girotzeko musika eta jan-eda-naz gain, bigarren urtez, dantza ema-naldiak izango dituztela ere iragarri du: «Erromeria belaunaldi berriei helaraz-teko asmotan, seigarren mailako hau-rreren sokadantza emanaldia izan genuen iaz, eta izandako harrera ona ikusita,

Tradizioari eutsita, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiak izango dituzte ermitaren aldameneko oholtzan



Jatekoa ez da faltatzen Aingeru Zaindariaen ermitako erromerian. **NEREA LIZARRALDE RODRIGUEZ**

aurten errepikatzea erabaki dugu». Amassorrain ikastolakoek hasi zuten ohitura berria, eta Ibaikoen konpainian arituko dira, oraingo honetan.

Nolanahi ere, urteroko moduan, ber-tsoek bereganatuko dute entzule ororen arreta. Tradizioari eutsita, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiak izango di-tuzte ermitaren aldamenean jarritako ohol-tza gainean: «Gogorarazpen deirik ere ez dute behar egun horretan hitzor-dua dutela jakiteko», dio Fernando Diez kideak. 30 urte baino gehiago darama-tzate laukoteko bi beteranoek; hoge-i, berriz, Gaztelumendi anaiek.

Bizilagunak aurkari, zinten norgehiagokan Martxoaren lehenaren giroak ostiralare-kin egingo du bat aurten, eta zuzenean batuko ditu erromeria eta jaien astebu-rua. «Bereziagoa izango da goizetik gauera arte jarduerak izango ditugula-ko», azaldu du Diezek. Auzotarrentzako eguna izan ohi dute ostirala, eta aurten, herri afaririk izango ez duten arren, Guateke Tropikala mantenduko dute gauerditik aurrera: «Tropikalari barra-ren itxurak ematen dio izena, azken ur-teotako jaietan izoztu egin gara eta», ai-tortu du Enparantzak, barrez.

Lautximeneta frontoian galdu ezin duten beste hitzordua «Koxkortuentza-

ko zinta lasterketa» da. 2002an berresku-ratu zuten 1960ko eta 1970eko hamarka-detan egin ohi zuten jarduera. Geroztik, Ibaetako bizilagunek ez dute hutsik egi-ten, eta ordu txikitik biltzen dira euren bizikletekin: «Jende mordoak jaietako une horretan agertzen da soilik, sari po-toleen bila», aitortu du Diazek. Hori ho-rrela, sari txikiak biderkatu egingo dituz-te, «lehiakortasuna apaltzeko».

Horren ondotik, eztarriak berotu eta abesteko beta izango dute ausartenek, karaokea berreskuratu baitute auzoan. Mojitoen laguntzaz, akaso, edo momen-tuko ausardiak bultzatuta, etxeko bai-nugelan landutako doinuak bizilagune-

Lukainkategi jatetxea

Aingeru Zaindaria Bidea, 85
20018 Donostia, Gipuzkoa

943-37 14 44

Ondo pasa jaiak!





2006ko dantzaokea, Aitor Zabaleta plazan. **RAUL PEREZ**

kin partekatzeko eta auzoa girotzeko parada izango dute bertaraten direnek.

Dantzalekuan, kalanbreak sentitu arte

Larunbatean, haurren jarduerak izango dira nagusi goizez eta arratsaldean. Eguerdian, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoaren emanaldiaz gozatzeke aukera izango dute etxeko txikienek. Arratsaldeko bostetatik aurrera, berriz, jolasak egingo dituzte haur eta gazteentzako: «Lokotxak, eltze puskatzea, arrautzaren jolasa eta adin txiki-koen zinta lasterketa egingo ditugu, tradizioari jarraiki», zehaztu du Diezek.

Iluntzean, herri danborrada ibiliko da auzoan bueltaka, eta horren ostean, Lautximeneta frontoiak bereganatuko du protagonismoa. Berataraten direnek, Gozategi eta Indabe taldeen kontzertuez gozatzeko aukera izango dute 22:30etik aurrera, eta ondoren, Mojito & Patxaran DJ-ek sortuko dute gorputzak astintzeko moduko giroa.

Larunbatean emandakoak arrastoa utzi ohi duela diote jai batzordetik; edonola ere, festak ez du etenik Ibaetan. Gauzak horrela, aurten ere, kontzertuak amaitu eta ordu gutxira dianak eta dultzaineroek esnatuko dute

auzoa. 10:30ean, musikaren konpainian izango dute toka eta bote txapelketa: «Egunik zailena da jai batzordearentzat, aurreko egunetako zama sumatzen hasten delako», dio Enparantzak. Hala, betaurrekoak soinean eta nekea gorpuztuta agertu ohi dira batzordeko kideak, azkeneko cocacolak kalte egiten ez badie, betiere. «Bakarren bati agertzea ere kosta egiten zaio», aitortu du Diezek, marmarka.

[Gozategi eta Indabe taldeen kontzertuak izango dituzte larunbatean, eta ondoren, Mojito & Patxaran DJ-ek sortuko dute giroa](#)

Diotenez, kide guztien presentziak badu justifikazioa. Eguerdian, Aitor Zabaleta plazako puzgarrien artean, dozenaka lagun biltzen dira sagardo dastaketaren eta patata tortilla lehiaketaren harira: «50 lagun aurkezten dira eta biltzen den jendetzarekin lan dezente izaten dugu». Arratsaldean, berriz, herri kirolek hartzen dute plaza. Aurten, Ugaitz Mugertza eta Mikel Larrañaga ibiliko dira aizkorarekin; Onintze Zumeta eta Lierni Osa, berriz, harria jasotzen.

Hogei urtez dantzan

Aurtengo berritasunen artean, baina, igande arratsaldeko eskaintza da nabarmen. Ostiralean egin ordez, Gaztetxoaren Dantzaokearen zita martxoaren 3an izango dute, 18:00etatik aurrera. Kideek azaldu dutenez, ekitadiaren 20. urteurrena ospatuko dute igandean. Xabier Saldias kide ohiak proposatu zuen, gazteei «zerbait gehiago» eskaintzeko asmotan, eta geroztik, ehunka haur igaro dira oholtza horretatik: «Azaroan hasten dira entseguekin, eta irakasleak zoratzen dituzte». Kuadrilla txikietan edo talde handitan, inguruko eskoletako haurrek profesionalki egiten diote aurre lehiaketari. Abestia aukeratuta, janzkera eta pauso oro fintzen ibiltzen dira azken unera arte: «Talde guztiek boladan dagoen abestia aukeratzeko dute, eta ohikoa izaten da doinu berdina behin eta berriz entzutea», diote barre artean.

Aurten, ehundik gora taldek eman dute izena, eta jardueraren urteurrena izanik, jai batzordeko kideek ez dute baztertzeko ekitaldiaren amaieran euren ekarpena egitea: «Polita izango litzateke gure garaiko abesti bat aukeratu eta emanaldiaren parte izatea», dio Larrañagak.

Dantzarako eta festarako gogoak handiak badira ere, ondo baino hobeto dabilen zaintza funtsezkoa izango dela aste-buru osoan zehar. Hori horrela, brigadisten taldea antolatu dute ostiral eta larunbat gauerako, eta Antiguako kideen laguntzaz osatu dute protokoloa, lehen aldiz: «Ezer ez pasatzea espero dugu, baina prest egon behar dugu eraso baten aurrean erantzuteko», diote kideek. Horretarako, telefono zenbakia jarriko dute eskugarri: 602-88 58 91. Era berean, txaleko moreekin ibiliko dira brigadistak, jai eremuan.

Belaunaldiak elkartzen

Etxeko lan guztiak eginda, jaietarako gogotsu daude batzordean. Auzoan hazi eta hezitakoek egun berezitat badituzte data horiek, are bereziagoak dira talde horretzat. Diezek eta Larrañagak goan dute duela 20 urte hasi zirela taldean, «alabentzako, eta haurrentzako

oro har, zerbait antolatu nahian». Egun, alabak koskortuta, jardunean segitzen dute, eta orduko haurrak dituzte kide.

Urteekin, eraldaketak izan ditu batzordeak. Batzuk joan eta besteak etorri, adin tarte askotariko hogeitak lagunetik gora osatutako taldea dute egun: «Gazteenak 22 ditu, zaharrenak, berriz, 70, eta primeran moldatzen gara». Afariak eta asteburupasak egiten dituzte elkarrekin, eta festetatik harago badituzte galdu ezin dituzten zenbait zita: martxoaren 23an, esaterako, Korrikaren kilometroa izango dute auzoan, euskara hauspotu eta ekitaldia bizilagunekin partekatzen.

Nolanahi ere, jaietan sumatzen da lantaldearen giroa; barra atzean zein antolakuntzan ere izaten baitute dibertimendurako aukera. Taldearen sekretua, hain zuzen, kideen gozamenen datza, Diezen irudiko: «Gazte asko ideia berriekin sartu ziren, eta horrek elikatu du aurretik zegoena».

Gazteei ere auzoarekin harremana ez galtzeko bide ematen diela gaineratu du Enparantzak. «Etiket irten garen gehienak beste auzoetan edo herrietan bizi gara, eta komunitatea mantentzeko aukera ematen digu honek». Gazte gisa sartutako askoren gaztetasuna agortze ar dagoela gaineratuta, hemendik gutxira lagun berrien fitxaketa lanetan hasi beharko direla gaineratu du: «Berritu ala hil, ez dago besterik». Berritasunak tradizioarekin uztartzean sortzen baitira hezeguneen zona horrek dituen giroa eta nortasuna.

Egitaraua

OTSAILAK 28, ASTEAZKENA

20:00etan, Aratz erretegiak:
Herri afaria, 40€.

OTSAILAK 29, OSTEGUNA

19:00-23:00,
GROSS garagardotegiak:
IPAETA festa. DJ eta giro paregabea.

MARTXOAK 1, OSTIRALA

AINGERU ZAINDARIAREN ERMITA

11:00etan, ermitan:
Meza.

12:00etan:
Salda. Estanga trikitilariak.

12:15ean:
Aingeru Zaindariaren sokadantza, Ibai eta Amassorrain ikastoletako ikasleekin.



12:45ean:
Bertsu saioa: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Beñat eta Unai Gaztelumendi.



17:30ean:
Buruhandiak eta Oria txaranga.

18:00etan:
Txokolate jana.

18:30ean:
Triki-bertsu-poteoa auzoan zehar.

22:00etan:
Guateke Tropikala.


01:30ean:
'Koxkortuentzako' (18 urte eta askoz gehiago bete dituztenentzat) zinta lasterketa (ezinbestekoa da bizikleta ekartzea).



Portuetxe Kalea, 53,
20018 Donostia, Gipuzkoa



Ondo pasa jaiak!



943-31 67 84 687-04 05 20

Ibaetako jaiak

MARTXOAK 2, LARUNBATA

LAUTXIMENETA FRONTOIA

12:00etan:

Haurrentzat ikuskizuna: Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak: *ATXIS!*



17:00etan:

Haurrentzako jolasak.

Krosa: Aingeru Zaindariaren ermitara igoera (izena emateko: Herrikrosa.eus/RealizaInscripcion.asp).

18:00etan:

Buruhandiak eta Oria txaranga.



18:30ean:

Txokolate jana.

19:30ean:

Txoko de la Txuleta tabernak zuzeneko musikarekin girotutako sardina jana eskainiko dute.

20:00etan:

Andaluziaren Egunaren ospakizuna Arrikitaun tabernan (Lee Junior abeslariaren emanaldia).

21:15ean:

Herri danborrada (18 urtetik gorakoentzat) auzoan zehar. Irteera: parrokiako behealdetik. (Jantziak: arrantzale, baserritarra, sukaldaria...). Entsegua: astelehena, otsailak 26, 19.30etan parrokiako behealdean.

22:30ean:

Musika taldeen emanaldia: Indabe eta Gozategi. Eta ondoren: Mojito & Patxaran DJ-ak.

Ibaetako Jaiak alaitasunez ospatu!



SANTO TOMAS
LIZEOA



Iribar Plaza, 2 · Ibaeta · 943-00 34 73 · www.igelajatetxea.com



MARTXOAK 3, IGANDEA

AITOR ZABALETA PLAZAN ETA LAUTXIMENETA FRONTOIAN

10:30ean:

Diana eta dultzaineroak.

Toka eta bote txapelketa (izen emateko itxiera ordua: 11:30).

11:00etan, Errotaburun:

Eskolarteko haur krosa.
Grupo Montes Nortek babestutako sariak, AOVEs denda, bodega eta gourmet produktuak.

12:30ean:

Patata tortilla lehiaketa (tortilla jasotzeko azken ordua: 12:15).
Parte hartzaile guztiek Super Amarako produktuen (tortilla egiteko) erosketatxartel bat jasoko dute.

12:45ean:

Sagardo dastaketa.

17:00etan:

Herri Kirol Jaialdia: aizkolariak (Ugaitz Mugertza eta Mikel Larrañaga) eta harri jasotzaileak (Oinitze Zumeta eta Lierni Osa): enbor mozketak, harri

jasotzeak, proba mistoa, trontza, txingak, korrika eta agurra.

18:00etan:

Dantzaokea gazteagoentzat (20. urteurrena).

MARTXOAK 4, ASTELEHENA

AITOR ZABALETA PLAZAN

17:00etan:

Umeen Eguna: feriak prezio erdian.

ONDO PASA JAÏETAN!

ARATZ
zabaleta anaiak

Igara Bidea, 15, 20018 Donostia, Gipuzkoa Tel.:943-21 92 04